

Tapiz berria

J.M. Olaizola, *Txiliku*

Orain kontatu behar dizuedan istorio hau Larrabetzun gertatutakoa omen da, eta niri kontatu zidaten bezala, hitz bakar bat ere aldatu gabe, errepikatuko dizuet.

Itxura denez, Joanjoren eta Marisaren etxean egongelako tapiza zaharkitu samarra zegoen, eta beste bat erosteko asmoa zeukaten aspalditik. Baina badakizue, gerorako utzi eta gerorako utzi, azkenean...

—Gaur bertan erosi behar dugu tapiz berria —esan zion Marisak Joanjori halako batean—. Zoaz Bilbora, tapiz persiarrak saltzen dituzten dendara, eta eros ezazu bat.

—Baina, Marisa —esan zuen Joanjok—, zuk badakizu ni oso txarra naizela tapizak aukeratzen.

Joanjo berrogei urtetik gorako gizona zen, sudurra kakoduna zuen, eta metalezko betaurreko txiki batzuk, sudur handi samarraren gainean.

—Berriz ere izango zara txarra beti zure emaztearen eskuetan uzten baduzu aukera! Tira, txorakeria gutxi, eta zoaz azkar.

Marisa ere berrogei urtetik gorako emakumea zen, ilea gorriz tindatutakoa zuena eta jenio bizikoa. Galtzekin ibili ohi zen ia beti, baina egun hartan gona luze bat jantzi zuen.

Bilera garrantzitsu batera joatekoa zen, itxuraz, eta horregatik izango zen, agian. Galtza edo gona, kontua da urduri zegoela. Eta Marisa urduri dagoenean, broma gutxi!

Joanjok, berriz, gogo gutxi zeukan tapiza eroatera joateko, baina Marisari nola esan ezetz! Eztabaidan ari zirela, Anartz eta Aiora, Joanjo eta Marisaren seme-alabak, etorri ziren.

Anartz bederatzi urteko mutikoa zen, amaren antz handikoa, sudur-motza eta ile kizkurduna. Aiora, berriz, hamaika urteko neska-motza zen, nahiko beltzarana eta ile ilunekoa.

Aiora beti prest egoten zen “aitatxori” laguntzeko, eta Anartz, berriz, beti amorratuta ibiltzen zen Aiorak esaten zuenari

kontra egiteko.

—Nik lagunduko dizut tapiza aukeratzen —esan zion Aiorak aitari.

—Ederki, Aiora. Eskerrik asko —esan zion aita, baina ez zirudien oso gustura zegoenik laguntza horrekin.

—Aiorak zurekin joan behar badu, nik ere zurekin joan nahi dut —Anartzek.

—Inbidix! —esan zion Aiorak, mingaina ateraz.

—Tuntuna! Aiora, ipurdia gora...

—Nahikoa da! —egin zuen oihu aita—. Biok nirekin oraintxe bertan. Goazen!

Hirurak Bilbo aldera joan ziren, hiriaren sarrerako saltoki erraldoi horietako batera. Lantegi itxurako denda handi batean “Tapiz persiarrak” jartzen zuen kartel handi batean.

Barrura sartu zirenean, zeharo txundituta geratu ziren, umeak batik bat. Lurzorutik hasi eta ia goiko sabairaino tapizez beteta zegoen denda guztia. Saltzailea eskailera handi batzuetan bezala ibiltzen zen, oinutsik, tapiza maila batzuetatik beste batzuetara.

Autoan istiluetan ibili baziren ere, dendan sartu bezain azkar adiskidetu ziren neba-arrebak.

—Goazen tapiz arabiarretara jolastera —esan zuen Aiorak.

—Tapiz arabiarretara? —Anartzek.

—Bai, motel! Tapzi hegalarrietara...

Anartz eta Aiora tapiz gorri-laranja baten gainean jarri ziren eserita, Aiora aurrean eta Anartz atzean.

—Eraman gaitzazu etxera! —esan zuen Aiorak.

Eta tapiza, mantso-mantso, airean abiatu zen, dendako ate irekitik atera, eta, zeru urdina zeharkatuz, ekialdeko bidea hartu zuen.

—Hegan ari gara! —esan zuen Aiorak.

—Ai... ai... ai... aita! —hasi zen totelka Anartz.

Baina aita despistatu hark ez zuen ezer entzun, ez zen ezertaz konturatu.

—Etxera ziztu bizian! —esan zuen Aiorak, zeharo ikaratuta.

Eta tapiza zitzu bizian abiatu zen, beti ekialdera, zuzen-zuzenean.

Aiorak eta Anartzek eztarriko zuloan korapilo handia zuten ordurako. Begiak itxi eta oihu egin zuten:

—Amaaaaa!

Halako batean, tapiza lurreratu egin zen. Han inguruan eraikuntza batzuk zeuden, eta haietako batzuek tipula baten antzeko sabaia zeukaten.

—Tapizak “bere” etxera ekarri gaitu, ez “gure” etxera —esan zuen Aiorak.

Aiorak esan bezala, tapizak Persiara eraman zituen neba-arrebak, “etxera” joateko esan baitzioten...

—Ederra egin dugu! —esan zuen Anartzek—. Eta orain zer?

—Orain? Bilboko tapiz-dendara joateko esango diogu eta hara eramango gaitu —esan zuen Aiorak.

Baina ez zuten ezer egiteko denborarik izan.

Ezertan hasi baino lehen, mutiko bat agertu zen tapizak lur hartu zuen etxe aurreko atarian. Azal iluneko mutil bat zen, betazal beltz handiak zituen, eta txapel txiki bat zeraman buruan.

—Al-ha, ala-ra! Ala-ni, ala-re, ala-al, ala-fon, ala-bra!

Aiora eta Anartz txundituta geratu ziren.

Hasieran kosta egin zitzaien ulertzea zer esaten ari zen mutiko persiarra, baina gero konturatu ziren “hitzen” aurreko “ala” eta “al” haiek guztiak kenduz gero, ulertzeko moduan hitz egiten zuela Persiako mutikoak.

—“Hara! Nire tapiza!”, esan zion Anartzek Aiorari.

—Zaude lasai, “lixtoa”. Dagoeneko nik ere ikasi dut nola den hizkera xeblebre hori! —erantzun zion Aiorak.

Berriketan aritu ziren etxe txikiaren aurrean. Persiako mutikoak dozena bat urte edo horrela izango zituen, eta, adierazi zenez, tapizak eginez irabazten zuen diru apur bat egunero.

Orduak eta orduak pasatzen zituen bere esku txikiekin koloretako hariei korapiloak eta korapiloak eginez, tapiz dotoreak osatzeko.

—Nola duzu izena? —galdetu zion Anartzek.

—Ala-da, ala-ri, al-us! —erantzun zuen Darius mutikoak.

—Ez al zara eskolara joaten? —galdetu zion Aiorak.

—Al-ez!

—Diru asko irabaziko duzu, orduan —esan zion Anartzek.

—Al-ez! —mutikoak.

Dariusek esplikatu zien berak lan asko egiten zuela, asko, asko, baina oso diru gutxi jaso.

Bere lanaren etekina Nasim bere nagusiak eramaten zuela, ia osorik. Bera txanpon batzuekin bakarrik geratzen zela. Nazka-nazka eginda zegoela Nasim arraio harekin eta ez zekiela zer egin.

Horretan ari zirela, oihu batzuk entzun ziren, urrutitik zetozen oihu batzuk, eta Dariusek esan zuen bere nagusia zela, zeharo haserre, eta “tapiz hori!, tapiz hori!”, oihukatuz zetorrela etxerantz.

—Ala-zer al-e, ala-gin?

—Zer egin? Eseri atzean —esan zuen Aiorak, eta hirurak eseri ziren tapizaren gainean: Aiora aurrean, Anartz ondoren eta Darius atzean.

—Eseri gara! —erantzun zion Anartzek.

—Eraman gaitzazu Bilboko tapiz persiarren dendara —esan zuen Aiorak—. Goazen ziztu bizian!

Eta tapizaren gainean ziztu bizian etorri ziren hirurak. Persiatik Bilboko tapiz-dendaraino, tximista baino azkarrago.

—Non sartu zarete? —galdetu zien aitak.

Eta nor da mutiko beltzaran hori?

—Gero esplikatuko dizugu, aita —esan zion Aiorak Joanjori—. Orain tapioz hau erosi behar duzu.

Joanjok tapiz gorri-laranja erosi zuen, ondo ordainduta, hegalaria zenik sumatu ere egin gabe. Bitartean, neska-mutikoak berriketan ari ziren, eta Dariusek bere ideia zein zen esan zien. Tapiz hegalariaekin mezulari eta gutun-banatzaile hasiko zen, eta Nasimentzat tapizak eginez baino diru gehiago irabaziko zuen horrela. Eskolara ere joango zen, denborarik geratzen bazitzaion...

—Ala-a, ala-gur! —esan zuen Dariusek.

Tapizaren gainean jarri zen, gero, eta Persiarako bidea hartu zuen azal iluneko mutikoak.

—Ala-e, ala-txe, ala-ra! —esan zuen.

Eta tapiza ekialderantz abiatu zen.

Dariusek agur egin zien eskuekin Aiora eta Anartzi, eta dendako ate zabaletik irtenda, zeruan galdu zen.

Joanjo gizajoa ahoa zabalik geratu zen.

—Orain nola esplikatu behar diot nik Marisari tapiz gorri-laranja bat erosi dudala etxerako, baina zeruan hegan joan dela, gainean mutiko beltzaran bat zuela.